Arartekoaren 2018S-2561-17 Ebazpena, 2018ko otsailaren 21ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta azkentzeko erabakia.

Aurrekariak

1. Herritar batek, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrak, Arartekoaren esku-hartzea eskatu du, ez baitago ados Lanbidek titularraren bi prestazioak azkentzea erabaki izanarekin.

2. Erabakiaren arrazoia, dirudienez, hauxe izan da: prestazioak irauten duen aldi osoan, kexagileak ez zituela erabili legozkiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko guztiak. Hain zuzen ere, kexagilea "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistrotik kendu egin zuten, alokairu-araubideko babes ofizialeko etxebizitza bati uko egiteagatik.

3. Bere idazkian, kexagileak azaldu zuen esleitutako babes ofizialeko etxebizitzari uko egin ziola, etxea hirigunetik kanpo zegoelako eta auzo horretara iristeko garraioa beharko zuelako. Era berean, argudiatu zuen oinarrizko zerbitzuak falta direla auzo horretan. Azkenik, 9 urteko alaba ikastetxera eramateko zailtasunak izango lituzkeela aipatu du.

4. Azaldutakoa ikusita, Arartekoak laguntza-eskaera bidali zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari eta bi prestazioak azkentzeko arrazoi zehatzak azaltzeko eskatu zion.

   Azkenik, ezer erabaki aurretik, gogoeta batzuk helarazi zizkion sail horri. Horiek ez errepikatzearren, jarraian jasoko dira.

5. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzuna jaso zen erakunde honen erregistroan. Horretan, Lanbidek azaldu zituen kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria azkentzeko arrazoi zehatzak.

6. Horrenbestez, beharrezkoak diren egitate eta zuzenbide elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Kexa-espediente honen arrazoia Arartekoak honako testu honetan aztertu zuen: "*Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko*

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

proposamenak jasotzen dituena, 2017"[1], hain zuzen, 5.3.3.2 puntuan, alokairu-araubideko babes publikoko etxebizitza bat ukatzeari buruzkoan.

2017ko diagnostiko-txostenak honako hau aipatzen zuen: "*zenbait kexagilek adierazi dute, alokairu-araubideko babes publikoko etxebizitza batzuetan librea baino merkeagoa den arren, Lanbidek kontuan hartzen ez dituen beste gastu gehigarri batzuk daudela (altzariak; sukaldeko tresnak; hornikuntzen gastuak; auzokideen erkidegoaren urteko gastuak...). Horrez gain, etxebizitzaz aldatzeak adingabeengan dituen ondorioak aztertu beharko lirateke. Izan ere, baliteke etxebizitzaz aldatzean beste ikastetxe batera ere aldatu behar izatea edo ohiko ikastetxera joateko distantzia gehiago egin behar izatea. Halaber, familia-sustraitzeko prozesua apur daiteke erkidegoarekiko eta babes-sareekiko eta horrek gizarteratzeari egiten dio kalte*".

Etxebizitzarako prestazio osagarriaz gain diru-sarrerak bermatzeko errenta ere iraungi izanari dagokionez, txostenak honako hau dio*: "Ararteko*aren *ustez, babes ofizialeko etxebizitza bat ukatzeak araudi sektorialak aurreikusten duen ondorioa ekarri beharko du, hain zuzen ere, Etxebizitza, Obra Publiko eta Garraiobideetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 18. artikuluan aurreikusitakoa, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa (Etxebizitza, Obra Publiko eta Garraiobideetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Agindua). Izan ere, horrek Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatutako eskaeren baja emateko kausak aurreikusten ditu. Besteak beste, h) atalak berenberegi jasotzen du honako hau: "bizikidetza-unitatearen logela-beharretara egokitzen den etxebizitza baten adjudikazioa ukatzeak, eskatutako sarbide-araubidean, hori erosketakoa bada eta bizikidetza-unitate eskatzailea edo horren titularretako edozein langabezian badago izan ezik". Baja hartzearekin batera, antzinatasuna galtzen da (Etxebizitza, Obra Publiko eta Garraiobideetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 19.1. artikulua) eta Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emateko aldi baterako debekua ezartzen da, hain zuzen ere, bi urtez [Etxebizitza, Obra Publiko eta Garraiobideetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 19.2.b) artikulua]. Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja hartzea aurreikusita dagoenez, etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzailea izatean, 5.1.c) artikuluan aurreikusitako betekizuna urratzen da; hala ere, horrek ez luke ondoriorik izan beharko diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioan. Eduki ekonomikoko eskubide oro baliatzeko betebeharraren interpretazio hori, hau da, ezin dela babes ofizialeko etxebizitza bat ukatu, araudiaren interpretazio zabal bat da; hala, interpretazio hori kaltegarria da pertsonen interesentzat eta ez dauka araudi-babesik herri-administrazioek bere jarduerak garatzeko jarraitu behar dituzten esku-hartzeko printzipioen arabera, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 4. artikulua*"

[1] **Ararteko**. Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituena, 2017. Hemen eskuragarri:
http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Hori guztia dela eta, 2017ko diagnostiko-txostenean honako ondorio hau atera zen:

Laburbilduz, Lanbidek, azaldutakoa bezalako kasuak kudeatzean, ordaintzen den errentaz gain, babes publikoko etxebizitza bat onartzeak dakartzan beste gastu gehigarri batzuk hartu beharko lituzke kontuan, baita etxebizitzaz aldatzeko erabakiak familia batengan dituen ondorioak ere. Edonola ere, babes ofizialeko etxebizitza bat ukatzeak soilik izan beharko lituzke ondorioak etxebizitzarako prestazio osagarrian, beren-beregi aurreikusita baitago etxebizitza eskatzaileen erregistroan inskribatuta egoteko betebeharra.

Horrez gain, honako gomendio hau egin zitzaion Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

39. Babes ofizialeko etxebizitza bat ukatzen denean, Lanbidek ukapen hori justifikatzeko arrazoiak egon daitezkeela baloratzea eta, hala badagokio, etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzea soilik eta ez diru-sarrerak bermatzeko errenta.

2. Argudio horiexek berak erabili dira duela gutxi emandako Arartekoaren 2017S-2561-16 Ebazpenean, irailaren 21ekoan[2] eta Arartekoaren 2017S-1655-17 Ebazpenean, abenduaren 19koan[3]. Horien bidez Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradoki genion berriz azter zezala herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko eta, horren ondoren, azkentzeko, erabakia, behar besteko lege babesik ez izateagatik eta proportzionaltasunaren, adingabearen interes gorenaren eta segurtasun juridikoko printzipioak urratzeagatik.

   Hala ere, Lanbidek jarraitzen du esaten esleitutako babes publikoko etxebizitza bati uko egiteak, etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeaz gain, diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzea ere dakarrela.

3. Ildo horretan, Lanbideko zuzendari nagusiak honako hau esan dio Arartekoari:

   - "*Berrikuspen-prozeduraren ebazpenean, hertsiki aplikatu dugu Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta izapidetzeko Lanbideren irizpide-eskuliburua. Haren 8.1.*

---

[2] **Arartekoa.** Arartekoaren 2017S-2321-16 Ebazpena, 2017ko irailaren 21ekoa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradoki genion berriz azter zezala herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko erabakia, behar besteko lege babesik ez izateagatik eta proportzionaltasunaren, adingabearen interes gorenaren eta segurtasun juridikoko printzipioak urratzeagatik [online]. Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4360_1.pdf

[3] **Arartekoa.** Arartekoaren 2017S-1655-17 Ebazpena, 2017ko abenduaren 19koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi izana [online]. Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4412_1.pdf

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

puntuan, arau orokorra ezartzen du: "DSBEren onuradun batek alokairuko babes ofizialeko etxebizitza bati uko egiteak EGPO iraungitzea eragiten du (baldintzak ez betetzeagatik), baita DSBE iraungitzea ere, kasu guztietan (eskubideak ez baliatzeagatik)".

Azaldutakoari jarraiki, Lanbidek, oro har, ez ditu kontuan hartzen babes publikoko etxebizitzei uko egiteko erabakian eragina izan dezaketen beste kontu batzuk (etxean altzariak dauden ala ez, hornikuntzen alta ematearen kostua, komunitatearen gastuak, adingabeen ikastetxeraino dagoen distantzia eta abar).

4. Lehenago esan bezala, Lanbideren arabera, etxebizitza bati uko egitea diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateagatik dagokion betebeharra ez betetzea da, hain zuzen, prestazioak irauten duen aldi osoan, titularrari edo bizikidetza-unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzeko betebeharra ez betetzea.

   Hala ere, erakunde honen iritziz, ez da urraketarik egon, babes publikoko etxebizitza bati uko egitea ez baitago araudian jasota diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko arrazoien artean eta ezin baita ondorioztatu jardun hori prestazioaren titular gisa duen betebehar honetan sartzen denik: "*prestazioak irauten duen aldi osoan eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea*".

   Arartekoaren iritziz, kasu honetan ez dago loturarik "*baliatzeko*..." aginduak hitzez hitz dioenaren eta kexagileari leporatzen zaion jokabidearen artean: "*babes ofizialeko etxebizitza bati uko egitea*". Berariazko araudiak, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko 2012ko urriaren 15eko aginduak, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarenak, ere ez du jasotzen uko egite horrek eskatzailearen diru-sarrerak bermatzeko errentan eragina duenik (19. artikulua), eta, esan bezala, ez dago argi eta garbi adierazita diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzeko araudian (Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12. artikulua). Etxebizitzarako prestazio osagarria, berriz, azaltzen da.

   Arartekoaren iritziz, interpretazio hori ez dator bat administrazio publikoek beraien jardueretan bete behar dituzten printzipioekin, urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoaren, 4.1. artikuluaren arabera:

   - "*Administrazio publikoek, haien eskumenen barruan dihardutela, eskubide indibidualak edo kolektiboak gauzatzea murrizten duten neurriak ezartzen badituzte edo jarduera bat egiteko betekizunak eskatzen badituzte, proportzionaltasun-printzipioa aplikatu beharko dute eta murrizketa txikiena eragiten duen neurria aukeratu beharko dute, interes publikoa babesteko beharrezkoa dela arrazoitu eta lortu nahi diren helburuetarako egokia dela justifikatu, betiere diskriminazioa eragiten duten tratu-desberdintasunak*

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

baztertuz. Halaber, lortutako eragin eta emaitzak ebaluatu beharko dituzte aldizka."

Bestalde, babes ofizialeko etxebizitzaren eskaerak eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaerak ez dira zerbitzu publiko berean kudeatzen, eta gaur-gaurkoz Eusko Jaurlaritzako sail desberdinen eskumenak dira zerbitzu horiek.

Laburbilduz, Arartekoaren iritziz, ez dago harreman zuzenik, lotura logiko eta ulergarririk, babes publikoko etxebizitza bati uko egitearen eta horrek eskubide ekonomiko bat baliatzeko betebeharra ez betetzea dakarrela esatearen artean.

5. Gogoeta horiek Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari hainbat idazki eta bileratan helarazi arren, Lanbidek ez du onartu Arartekoak defendatzen duen jarrera.

6. Azkenik, erakunde honek Arartekoaren 2/2015 Gomendio Orokorrean, apirilaren 8koan,[4] adierazitakoa azpimarratu behar du berriz ere. *Politika publikoetan adingabearen interes gorena kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman.* Han, araudiaren aplikazioa aztertu genuen, haurren gaietan hitzartutako nazioarteko tresnak kontuan hartuz. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena barneko zuzenbidera sartzeak adingabearen interes gorena kontuan hartzea dakar, eta araudia Haurren Eskubideen Batzordeak ezarritako parametroei jarraituz interpretatu eta ezartzera behartzen ditu botere publikoak.

   Halaber, gomendio horren bidez, Arartekoak Europako Batzordearen *"Haurrengan inbertitzea: desabantailen zikloa haustea"* gomendioa[5] ere aipatu zuen. Dokumentu horrek gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko sistemak haurren bizitzan garrantzi handia duela azpimarratzen du, besteak beste. Gainera, hark nabarmentzen du, familiak jasotzen dituen prestazioak gurasoetako baten jokabidearen araberakoak direnean, gurasoen jarduketa aztertzean zuhurtasunez jokatu beharra dagoela eta, besteak beste, neurri horiek izan dezaketen eragin negatiboa ebaluatu behar dela.

   Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, honako hau da gure iradokizuna:

---

[4] **Arartekoa.** Apirilaren 8ko Arartekoaren 2/2015 Gomendio Orokorra. Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman. [online]. Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3662_1.pdf

[5] **Europako Batzordea.** Batzordearen gomendioa, 2013ko otsailaren 20koa. Europar Batasuneko aldizkari ofiziala, 59/5 L. [online]. Hemen eskuragarri: http://publications.europa.eu/resource/cellar/9a28f23b-84c3-11e2-89d6-01aa75ed71a1.0007.04/DOC_1

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

ararteko
Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

IRADOKIZUNA

Azaldutakoaren ildotik, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak berriz azter dezan diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeari buruzko ebazpena, behar adinako lege babesik ez duelako.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus